6. Taula Energia berriztagarrien ekoizpena Gipuzkoan (MWh) 2019-2023 urteen artean, eguzki-termikoaren, aerotermiaren eta geotermiaren artean ekoizpena bereiziz.

Egia esan, 2021etik aurrerako beherakada garrantzitsu horren ondoren, metodologian egindako doikuntzaren ondorioz, energia mota horren ekoizpena pixkanaka handitzen joan da urteak aurrera egin ahala.


6.2. Gipuzkoan instalatutako gaitasuna

Instalatutako gaitasunak goranzko joerari eutsi dio 2010. urtetik, igoera handia izan zuen 2020 eta 2021 artean GIG-a abian jartzearen ondorioz. 2023an berriz ere gorakada handia izan du, batez ere eguzki energia fotovoltaikoan instalatutako gaitasuna handitu delako, 9. Grafikoan ikusi daitekeen bezala.



8. Grafikoa Guztira instalatutako gaitasunaren denboran zeharreko bilakaera Gipuzkoan 2010-2023 bitartean (MW). Berez eratua EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.


³ Aeroterミア bidezko ekoizpen berriztagarria kalkulatzeko metodologia berriarekin kalkulaturako datuak



9. Grafikoa Gipuzkoan, energetiko motako, 2010-2023 bitartean energia berriztagarrietan instalatutako gaitasuna. Berez eratua EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

Biomasa, Gipuzkoan instalatutako ahalmen handiena duen energia berriztagarria izan arren, igoera oso motela izan du 2017tik aurrera. Aldiz, eguzki fotovoltaikoaren gaitasunak izan du hazkunderik handienetako bat: bikoiztu egin da 2022ko datuekin alderatuta, eta seikoiztu 2010ekoekin alderatuta. Hala, 2023an, lurraldean ahalmen handieneko bigarren energia berriztagarrien iturri bihurtu da. Minihidraulikoa eta eolikoa, aldiz, instalatutako gaitasun bera mantentzen da, ia aldaketarik gabe, 2010az geroztik eta hirugarren eta laugarren postuetan kokatzen dira. Eguzki-panel termikoen azalera hamabi bider handitu da azken hamabi urtetan, nahiz eta 2021etik gelditu egin den bosgarren lekua mantenduz Gipuzkoan. GIG 1-a 2021ean abian jarrita, etxeko hondakinetatik energia berriztagarria ekoizteko instalatutako ahalmena agertzen dela ikus daiteke, baita biogasaren ahalmen instalatua handitzen dela ere (GIG 2). Hala ere, 2023an, biogasaren instalatutako ahalmena ia erdira murriztu da, eta 2021aren aurreko balioetara itzuli da. Izan ere, 2023an San Markos zabortearen sortutako biogasa aprobetxatzeko instalazioa itxi egin zen, 2,4 MW-ko potentzia instalatua zuena. Biogasa lurraldean ahalmen instalatu gutxien duen energia da. Azkenik, geotermian instalatutako ahalmenak, biogasarena baino handixeagoa denak, igoera txiki baina jarraitua izan du 2010etik.

Ziurrenik, energia fotovoltaikoaren ustiapenak gora egiten jarraituko du datozen urteetan, besteak beste, instalazio-kostu txikiak dituelako beste teknologia batzuekin alderatuta, eta gaur egun dauden laguntza eta zerga-arinketak direla-eta. Ustiapen moduen artean, tokiko energia komunitateak (TEK) indartzen ari dira, eta nabarmen handitu dira azken hiru urteetan, bai kopuruari dagokionez, bai eta instalatutako potentziari dagokionez (kW).




3. Irudia Tokiko energia komunitateen bilakaera Gipuzkoan 2020-2023 bitartean. Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia.

2023an, energia komunitateen esparruan, sorkuntza berriztagarriko 5,52 Mwh-ko ekoizpena lortu da. Hori lurraldeko herritarren 45 energia komunitateei eta 4 industria komunitateei esker gertatu da, guztira 6.681 partehartzaile biltzen baitituzte.

Tokiko energia-komunitateak sortu eta sustatzea Gipuzkoako 2050erako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategiaren (2050GJEE) funtsezko ekintzetako bat da; izan ere, estrategiak berriztagarrien hedapen eraginkorra energia sortzeko eredu batekin erlazionatzen du, bai eta autokontsumo indibidual eta partekatuen hedapenarekin eta energia-komunitateen laguntzarekin ere, besteak beste. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak tokiko energia komunitateak bultzatzeko dirulaguntzak ditu gaur egun. Beraz, etorkizunean energia komunitate horiek gora egitea espero da eta horrek, aldi berean, eguzki fotovoltaiakoaren ustiapena areagotzea.

Jarraian, teknologia mota bakoitzerako 2023an instalatutako MW berriztagarrien banaketa erakusten da.



10. Grafikoa Gipuzkoan 2023an instalatutako potentzia berriztagarria (MW). Berez eratua EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

2023an, biomasak instalatutako ahalmen handiena duen energia berriztagarria izaten jarraitzen du Gipuzkoan, baina, 2022arekin alderatuz, eguzki-potentzia fotovoltaiakoaren igoera oso nabarmena da, Gipuzkoan instalatutako potentziaren laugarren postutik (guztizkoaren % 11,22) bigarrena izatera igaro baita (guztizkoaren % 20,39).

Energia ekoizpenaren eta instalatutako potentziaren arteko erlazioa desberdina da energia berriztagarrien tipologiaren arabera. Ildo horretan, nabarmentzekoa da biomasaren kasua, 2023an instalatutako potentziaren % 22,96 baita, eta energia ekarpena, berriz, % 68,78. Antzeko zerbait gertatzen da hondakinen kasuan, instalatutako potentziaren % 7,32 bakarrik izanik, lurraldeko energia ekoizpenean duen ekarpena % 15,60 baita, biomasaren atzetik bigarren postuan (6. eta 10. Grafikokoak).

6.2.1. Autokontsumo-instalazioak


2019an energia elektrikoaren [autokontsumoa erregulatzeko 244/2019 Errege Dekretua](#) onartu zen, jatorri berriztagarriko energia elektrikoa sortzeko lege esparrua aldatu zuena. Horrekin, jatorri berriztagarriaren sorkuntzarako edo efizientzia handiko kogeneraziorako iturrietan oinarritutako autokontsumoko instalazioak bultzatu ziren.

Autokontsumoa kontsumitzaile batek edo ugarik haiengandik hurbil dauden ekoizpenerako instalazioetatik datorren energia elektrikoa kontsumitzea da (MITECO, d.g. b).

Autokontsumo-instalazioak teknologia ezberdinetakoak izan badaitezke ere, esate baterako, eolikoa, biogasa, efizientzia handiko kogenerazioa, geotermia, eguzki-termikoa edo hidroelektrikoa, gaur egun, fotovoltaikoa da gehien erabiltzen den teknologia. Hori instalatzeko erraztasunagatik eta bere kostu baxuagatik gertatzen da.

Autokontsumoaren erregulazioarekin, halako instalazioak sustatzen dira. Aldeko araudi esparru batekin, 2022an autokontsumorako 728 instalazio zeuden Gipuzkoan, eta 2023an 646 instalazio gehiago daude; guztira, 1.374 instalazio autokontsumorako. Nabarmentzekoa da 2023an egindako instalazioen % 100 instalazio fotovoltaikoak izan direla.

Autokontsumo-instalazioek, ordea, ez dute mugatzen horiekin lotutako kontsumo-puntuen kopurua; izan ere, instalazio bakoitzarekin lotutako kontsumo-puntu bat baino gehiago egon daiteke. Hori horrela da, autokontsumo-instalazio kolektiboetan. Beraz, litekeena da Hornidura Puntuaren Kode Unibertsal (HPKU) gehiago egotea autokontsumo-instalazioak baino. 2022aren amaieran jada autokontsumorako instalazioei lotutako 1.132 HPKB erregistratu ziren, eta 2023an horiei 802 HPKB gehitu zaizkie. Guztira, 1.934 HPKU daude Gipuzkoako autokontsumorako instalazioei lotuta. Instalaturako potentziari dagokionez, 2022an guztira 18.974,20 kW-eko autokontsumoko potentzia instalatua zen, fotovoltaikoa, biogasa, eolikoa eta minihidraulikoaren artean. 2023an, beste 16.176,7 kW gehitu ziren, horrela, guztira autokontsumoan instalaturako potentzia 35.150,90 kW-ko izanik, eta horren % 94 fotovoltaikoari dagokio.




11. Grafikoa 2021, 2022 eta 2023. urteetako Gipuzkoako autokontsumoko potentzia instalatua (kW). Berez eraturia Trantsizio Ekologiko eta Eronka Demografikorako Ministerioaren informazioan oinarrituta (d.g. b).

Biltegitratzeko instalazioei dagokienez, 2022 urtearen amaieran 141 instalazio zeuden guztira Gipuzkoan. 2023an beste 270 biltegitratze instalazio gehitu ziren, eta, horrela, guztira mota horretako 411 instalazio erregistratu ziren lurraldean.

Instalazioen tipologia eta potentzia alde batera utzita, modalitateen arabera multzoka daitezke. Hor, nagusiki, 3 aukera daude:


- Konpentsaziora atxikitako soberakinak dituzten autokontsumo-instalazioak.
- Soberakinik gabeko autokontsumo-instalazioak.
- Konpentsaziora atxiki gabeko soberakinak dituzten autokontsumo-instalazioak.

Hiru modalitate horien artean, lehenengoa da ohikoena. Bertan aprobetxatzen ez den edo biltegitratu ezin den energia-soberakinaren zati bat konpentsatzeko aukera dago. Gipuzkoan, 2020an eta 2023an, horrela banatzen da:



12. Grafikoa 2020 eta 2023. urteetako Gipuzkoako autokontsumo-modalitateak. Berez eraturia Trantsizio Ekologiko eta Eronka Demografikorako Ministerioaren informazioan oinarrituta (d.g. b).

Instalatutako potentzia honako kontsumo-modalitate hauen artean dago banatuta, modu honetan:



13. Grafikoa 2020 eta 2023. urteetan Gipuzkoan instalatutako potentziaren portzentajea autokontsumo-modalitateen arabera. Berez eraturia Trantsizio Ekologiko eta Erroka Demografikorako Ministerioaren informazioan oinarrituta (d.g. b).

Autokontsumo-instalazioak areagotzean energia-mendekotasuna murriztu egingo da, energia tokian bertan sortzea bultzatuz, eta Berotegi Efektuko Gasen (BEG) emisioak murriztuz.

Alderdi horretan, nabarmendu behar da, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren erregulazioa ezartzen duen [martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuaren](#) arabera, egoitza Euskadin duten enpresek Sozietateen gaineko zergan % 30eko kuota likidoaren kenkaria eskura dezakete zerrenda honetan zehaztutako edozein ekipamendu osotan egindako inbertsioaren zenbatekotik (Eusko Jaurlaritzak, 2020). Gainera, teknologia garbietan egindako inbertsio horiek bateragarriak dira mikroenpresa edo enpresa txikientzako amortizaziorako askatasuna aplikatzearekin edo amortizazio bizkortua enpresa ertainen kasuan (Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauko 21. artikulua).

Teknologia Garbien Euskal Zerrendak, gaur egun, energia sortzeko eta autokontsumoko hainbat ekipa barne hartzen ditu:

- D-4010 Mikrosorkuntzarako unitate trinkoa
- D-4013 Errendimendu handiko bero-ponpak (SPF>2,5)
- D-4018 Ura berotzeko eguzki-kolektore termiko laua
- D-4019 Ura berotzeko hutseko eguzki-kolektore termikoa
- D-4020 Panel fotovoltaikoa
- D-4021 Aerosorgailuak
- D-4027 Energia berriztagarrien edo hondar-beroaren bidez klimatizatze ekipoa
- D-4032 Instalazio geotermikoa bero-ponparekin
- D-4033 Biomasa solidoko galdarak % 90etik gorako errendimenduekin

Duela gutxi argitaratu da [2024ko azaroaren 26koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuarena, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta](#)

[onartzen duen AGINDUA](#) eta zenbait berrikuntza ekarri ditu zerrendara, hala nola teknologia zaharkitu batzuk kentzea eta berritzaileagoak sartzea.


Gainera, Gipuzkoako Lurralde Historikoan eta [Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren](#) arabera, garapen iraunkorrari begirako proiektuekin lotutako inbertsio eta gastuen kenkariei, ingurumenaren kontserbazioa eta hobekuntzari eta energia-iturrien aprobetxamendu efizienteagoari dagokionez, 65. artikuluan aurreikusten da ibilgetu materialaren aktibo berrietan egindako inbertsioen zenbatekoaren % 15 kuota likidoa kendu ahal izango dela, horiek beharrezkoak direnean jarraian adierazten diren helburuetako bat duten proiektuak egikaritzeko:

- Hondakinen minimizazioa, berrerabilpena eta balorizazioa.
- Mugikortasuna eta garraio iraunkorra.
- Natura-eremuak ingurumenari dagokionez lehengoratzeko, osabidezko neurriak edo borondatezko bestelako jarduketak gauzatzearen ondorioz.
- Ur kontsumoaren minimizazioa eta bere arazketa.
- Energia berriztagarrien eta energia-efizientziaren erabilera.

Azkenik, aurretiaz aipatu den eran, [3/2014 Foru Arauko](#) 87 BIS artikuluan Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergadunek Pertsona Fisikoen gaineko Errentari buruzko Zergan % 15eko kenkaria aplika dezaketela zehazten da ohiko etxebizitzan eguzki instalazio elektrikoaren kostuarengatik, 3.000 euroko muga batekin. Kuota osoa nahikoa ez izateagatik kenkaria aplikatu gabeko zenbatekoetan 4 urtetan aplikatu ahal izango da.

7. Energia elektrikoaren hornidura

Garrantzitsua da **energia elektrikoaren hornidura** aztertzea, Gipuzkoan bere jatorria eta bere bilakaera zein den jakiteko. Lurraldean kontsumitzen den energia elektrikoa inportaziotik, energia berriztagarrien aprobetxamendutik eta transformazio-prozesuetatik dator. Gipuzkoa, elektrizitateari dagokionez, kanpoaldearen mendekotasun handia duen komunitatea da oraindik. Ez dago 2010eko daturik, izan ere, ez dago kogenerazioari buruzko daturik eskuragarri, bere jatorriaren arabera banakatuta (berriztagarria edo gas naturala).



14. Grafikoa Gipuzkoan kontsumitzen den energia elektrikoaren jatorria, 2011. eta 2023. urteak. Berez eratu EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

Jadanik [4.1 atalean](#) adierazi den eran, azken kontsumoan irudikatzen den energia elektrikoa frakzio berriztagarri batez eta ez berriztagarri batez osatuta dago.


Energia elektrikoaren frakzio berriztagarria horrela eratzen da:

- Inportazioko energia elektriko berriztagarria (Sankey-ren diagraman 3* kodearekin irudikatua).
- Jatorri berriztagarriko termiko konbentzionala (GIG-an ekoiztako energia elektrikoaren frakzio berriztagarria irudikatzen du) (Sankey-ren diagraman 7* kodearekin irudikatua).
- Energia berriztagarriaren kogenerazioa (Sankey-ren diagraman 5* kodearekin irudikatua).
- Berriztagarriak (Sankey-ren diagraman 4* kodearekin irudikatua).

Energia elektrikoaren frakzio ez berriztagarria horrela eratzen da:

- Inportazioko energia elektriko ez berriztagarria
- Gas naturalaren kogenerazioa
- Termiko konbentzional ez berriztagarria (GIG-an ekoiztako energia elektrikoaren frakzio ez berriztagarria irudikatzen du)

Gipuzkoako energia elektrikoaren hornidura aztertuz 2023. urteari dagokionez, ondoriozta daiteke, gutxi gorabehera, azken kontsumoan, energia elektriko modura irudikatzen den azken kontsumoaren % 48,15 iturri berriztagarrietatik datorrela (14. Grafikoa).



15. Grafikoa Ezkerrean: Gipuzkoan kontsumitzen den energia elektrikoaren jatorriaren bilakaera 2010 eta 2023 bitartean (kptb). Eskuinean: Gipuzkoan kogenerazioaz ekoiztako energia elektrikoaren bilakaera 2011 eta 2023 bitartean (kptb). Berez eratu EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

Pasaiako zentrala desagertuta, 2013an elektrizitatearen arloan inportazioek gora egin zuten, nahiz eta termino absolututan pixkanaka kopurua behera doan (15. Grafikoa).


Ordutik eta 2021. urtera arte, Gipuzkoan ez da termiko konbentzional bidezko transformazio-prozesurik egon. 2021ean termiko konbentzional bidezko transformazio-prozesuak agertu ziren berriro; izan ere, balantzeari so, GIG-an ekoizten den energia termiko konbentzional modura

zenbatzen da, eta frakzio bat energia berriztagarri modura eta beste bat ez berriztagarri modura banatzen da (14. Grafikoa).

Eraldaketa bidez, jatorri berriztagarriko elektrizitatearen ekoizpenari dagokionez (4* kodea 3. Irudian), lurraldean ez da aldaketarik izan azken urteetan, eta 2023an Gipuzkoan guztira kontsumitutako energia elektrikoaren % 3,32 soilik suposatzen du (14. Grafikoa).

Kogenerazioan instalatutako gaitasunean ez da ia aldaketarik izan, eta azken 13 urteetan instalatutako potentzia nahiko konstante mantendu da (16. Grafikoa). Haatik, kogeneraziotik datorren energia elektrikoak jaitiera handia izan zuen 2022an 2021arekin alderatuta (% 48,63). Hala ere, 2023an, kogeneraziotik datorren energia elektrikoaren ekoizpena berriro igo da pixka bat.


Gipuzkoan kogenerazio prozesuen sarrerek gas naturalaren edo energia berriztagarrien bidezkoak dira. 2023an kogeneraziotik ekoiztutako energia elektriko guztiaren % 10,87 energia berriztagarrien erabileratik dator (5* kodea 3. Irudian). 2023ko kogenerazioaren gorakada txikiaren arrazoia, hain zuzen ere, Gipuzkoako kogenerazioan gas naturalaren kontsumoaren gorakada izan da, 2023an % 5,82 igo baita 2022arekin alderatuta (15. Grafikoa).



16. Grafikoa Gipuzkoan Kogenerazioan instalatutako gaitasuna (MW) 2010-2023 bitartean. EEE-ren eta GFA-ren datuetan oinarrituta eratua.

8. Azken energia-kontsumoa


Azken energia-kontsumoak industrian, garraioan, etxeetan edota enpresetan erabilitako energiari egiten dio erreferentzia. Dagoeneko eraldatuta eta erabiltzeko prest dagoen energia.



17. Grafikoa Barne-kontsumo gordinaren denboran zeharreko bilakaera Gipuzkoan 2010-2023 (kptb). Berez eratuak
EEE erakundearen eta GFA-ren informazioa oinarritzat hartuz.

Azken energia-kontsumoa azken urteetan pixkanaka jaisten joan da, 2017an izandako gorakada bat eta 2021etik aurrerakoa salbuetsita. Jaitsiera bereziki nabarmena da 2020an. Ziurrenik, Covid-19 birusaren ondorioz pandemiaren eraginez, 2019. urtearekin alderatuz, % 14,13 jaitsi baitzen. 2021 eta 2022an, azken energia kontsumoak gora egin zuen 2020ko krisi-egoeraren kontsumoarekin alderatuta. Hala ere, 2023an, azken energia-kontsumoak beheranzko joera hartu du berriz ere, % 4,68ko beherakadarekin, batez ere gas naturalaren eta petrolioaren eta bere deribatuen kontsumoa murriztu delako.


Azken kontsumoan izaten diren aldaketak egoera ekonomikoarekin lotzen badira ere, ikus dezakegunez, azken kontsumoak behera egin arren, lurraldean 2013az geroztik Balio Produktu Gordinaren (BPG) igoera iraunkorra gertatu da (18. Grafikoa), 2020. urtea salbuetsita, Covid-19 birusaren ondoriozko pandemia dela eta. Horrenbestez, nabarmendu behar da azken energia kontsumoak ez duela BPG-ren joera bera jarraitu eta, beraz, badirudi energia kontsumoa hazkunde ekonomikotik banantzea lortu dela:





18. Grafikoa Barne Produktu Gordinaren (BPG) eta Gipuzkoako azken energia kontsumoaren 2010 eta 2023 bitarteko bilakaera adierazleak. Bariazio hori kalkulatzeko kontuan hartu da 2010eko balioa 100ekoa dela. Berez eratu Eustaten (2024 a) eta EEE-ren informazioan oinarrituta.

Azken 13 urteetan azken energia-kontsumoa aldakorra izan da, bereziki, industriaren eta garraioaren sektoretan. Sektore horiek dira, hain zuzen ere, lurraldean energia gehien kontsumitzen duten sektoreak (19. Grafikoa). Industria-sektorean, azken energia-kontsumoa % 38 jaitsi zen 2010etik 2019ra, eta igo egin zen 2021ean (pandemiaren ondoren). Harrezkero, berriz ere behera egin du, eta 2023an 2019ko balioak baino baxuagoak aurkeztu ditu.

Garraioaren sektorean azken energia-kontsumoa % 27,3 areagotu zen 2010 eta 2019 bitartean, eta 2022an % 16,91ko igoera izan zuen 2020. urtearekin alderatuz, 2019. urtearen antzeko balioetara gerturatuz (pandemia aurreko balioak) (19. Grafikoa). Haatik, 2023an garraioaren sektoreko azken energia-kontsumoa apaldu egin da, pixka bat jaitsi ere, 2022arekin alderatuta.



19. Grafikoa Ezkerrean: Azken energia-kontsumoaren denboran zeharreko bilakaera Gipuzkoan 2010-2023 (kptb). Eskuinean: Azken energia-kontsumoaren portzentajea Gipuzkoan sektoreka 2023an. Berez eratu EEE erakundearen eta GFA-ren informazioa oinarritzat hartuz.




20. Grafikoa Ezkerrean: Azken energia-kontsumoaren denboran zeharreko bilakaera energetikoaren arabera Gipuzkoan 2010-2023, azken kontsumoa (kptb). Eskuinean: Azken energia-kontsumoaren portzentajea Gipuzkoan energetikoaren arabera 2023an. Berez eratuak EEE erakundearen eta GFA-ren informazioa oinarritzat hartuz.

Energetiko adierazgarrienaren kontsumoa, petrolioa eta bere deribatuak, funtsean, garraioaren sektorearekin dago lotuta, eta Covid-19 birusaren ondoren normaltasunera itzultzearekin batera 2021etik aurrera bere balioak goraka doaz. Hala ere, 2023an energia mota horren azken kontsumoa % 3,31 jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta. Gauza bera gertatzen da gas naturalaren eta energia elektrikoaren kontsumoarekin, beheranzko joera erakusten ari baitira (gas naturala: % 53,56ko jaitsiera 2010etik 2023ra, eta energia elektrikoa: % 27,66ko jaitsiera 2010etik 2023ra). Aitzitik, ikus daiteke energia berriztagarrien kontsumoa pixka bat igo dela (% 22,86 igo da 2010etik 2023ra), eta industria da haren kontsumitzaile-sektore nagusia, bereziki biomasa-kontsumoaren ondorioz (6* kodea 3. irudian).

Azkenik, eta txosten honetako [4.1](#) eta [7. ataletan](#) adierazi den eran, nabarmendu behar da energia elektrikoa modura irudikatzen den azken kontsumoaren % 48,15, gutxi gorabehera, iturri berriztagarrietatik datorrela (1. eta 14. Grafikoa). Alderdi hori kontuan izan behar da azken energia-kontsumoari buruzko [8. atal](#) osoan zehar.


8.1. Garraioa

Gaur egun, garraioaren sektorea da Gipuzkoan azken energiaren kontsumitzailea nagusia. Sektore horretan energia-kontsumoa egonkor mantendu zen 2010 eta 2014 bitartean. Une horretatik aurrera goranzko joera izan da nagusi, 2019 eta 2020 bitartean baino aldatu ez dena, pandemiaren eraginez; dena den, 2021etik goranzko joera berreskuratu du. Garraioan kontsumoa % 31,13 areagotu zen 2014 eta 2019 bitartean; % 19 jaitsi zen 2019 eta 2020 bitartean; eta % 16,91 igo da 2020 eta 2022 bitartean. Haatik, 2023an azken energia kontsumoa pixka bat jaitsi egin zen garraioan, kontsumoaren % 1,05eko murrizketa batekin 2022ko balioekin alderatuta.




21. Grafikoa Energia-kontsumoaren denboran zeharreko bilakaera garraioaren sektorean Gipuzkoan 2010-2023 (kptb). Berez eratuia EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

Gipuzkoan, garraioaren sektorean azken energia-kontsumoa errepide bidezko garraioarekin lotzen da bereziki, 2023an azken kontsumoaren % 96,74 suposatzen duelarik.




22. Grafikoa Kontsumoa garraiobidearen arabera Gipuzkoan 2023an (kptb). Berez eratuia EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

2023an Gipuzkoako automobil parkean igoera txiki bat egon zen (% 0,49ko igoera) 2022. urteko balioekin alderatuta eta, ondorioz, zirkulazioan dauden ibilgailuen kopurua 479.331 ibilgailutan kokatzen da. Azken hamarkadan, Gipuzkoako automobil parkea % 8,6 hazi da. Ibilgailu motari dagokionez, turismo erako ibilgailuak dira nagusi, Gipuzkoan dauden ibilgailu guztien % 69,6 izanik.




23. Grafikoa Ibilgailuen parkearen banaketa Gipuzkoan 2023an. Iturria: Garraioaren Informazio Sistema GIS (2024 a).

GIS-k argitaratutako azken informazioarekin bat etorritik, motorizazio-indizea (ibilgailuak 1.000 biztanleko) % 7,60 areagotu da 2012-2023 bitartean, bereziki garrantzitsua izanik 2023an jasandako igoera, 2022ko datuekin alderatuta; biztanleko motorizazio-indizea (turismoak 1.000 biztanleko), aldiz, % 6,52 igo da 2012-2023 bitartean.




24. Grafikoa Monitorizazio indizea Gipuzkoan 2012tik 2023ra. Iturria: GIS (2024 b)

Era berean, 25. Grafikoan, Gipuzkoako matrikulazio ratioa erakusten da, erregai motaren arabera. Ikus daitekeenez, gasolinazko eta dieselezko ibilgailuen matrikulazioak murrizten ari dira azken urteetan, eta ibilgailu elektrikoen matrikulazioa eta, bereziki, ibilgailu hibridoena handitzen ari da. Izan ere, 2023an ibilgailu hibridoak matrikulazioak izan dira ohikoenak, erregai fosilen ibilgailuen matrikulazioen gainetik.




25. Grafikoa Gipuzkoako matrikulazioen bilakaera erregai motaren arabera 2016tik 2023ra. Iturria: GIS (2024 c)



26. Grafikoa Matrikulazioak Gipuzkoan erregai motaren arabera 2023an. Iturria: GIS (2024 c)


Garraioaren sektorean, energetikoen kontsumoari dagokionez, azpimarratu behar da kontsumoaren balioa lurraldean izandako salmentatik lortzen dela. Horrela, litekeena da salmenta eta mugikortasuna bat ez etortzea, erregaien prezioak eta lurralde mugakideekin erregaien salerosketak eta lurraldeak pasabide modura duen egoerak eraginda, batez ere Europarantz doan errepide bidezko salgaien garraiorako. Horren ondorioz, litekeena da salmentek ez islatzea lurraldeko guztizko kontsumoa.

Garraioaren sektorean, azken urteetan, ia ez da aldatu energetiko ezberdinen partaidetza azken energia-kontsumoan. Petrolio eta bere deribatuak dira, oraindik, energetiko nagusia, % 92,67ko portzentaje batekin 2023an. Hala ere, garraioan energia berriztagarrien erabilerak gora egin du pixka bat 2010arekin alderatuta. EEBB-etatik abiatutako errepideko azken energia kontsumoa bioerregaiei dagokie; izan ere, errepideko garraioko kontsumo elektrikoa oso txikia da oraindik Gipuzkoan (27. Grafikoa).




27. Grafikoa Energetikoaren araberako kontsumoa garraioaren sektorean Gipuzkoan 2010-2023 (kptb). Berez eratua EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

2023an, energetikoen kontsumoak garraioan, A gasolioak izan ezik, igotzen jarraitu dute, 2020an pandemian izandako beherakadaren ondoren. Nahiz eta A gasolioaren kontsumoa % 4,73 murriztu den 2022koaren aldean, azpimarratzekoa da duen pisu handia, urteko kontsumoaren % 79,51 baita. PGL, elektrizitate eta gas natural bidezko kontsumoa oso eskasa da gainerako energetikoekin alderaketa egiten badugu. Haatik, biokarburatzaileek, aurrekoekin batera erregai alternatiboen multzoa osatzen dutenak, kontsumoaren % 6,82 osatzen dute. Izan ere, garraioan biokarburatzaileen kontsumoa nabarmen igo da 2023an, eta 2018tik energia horren kontsumo-baliorik handiena lortu da. Igoera hori, batez ere, garraio-sektorean kontsumitzen diren gasolinaren eta dieselaren biokarburatzaileen ehunekoak izan duen gorakadari zor zaio.




28. Grafikoa Ezkerrean: Guztizko kontsumoaren denboran zeharreko bilakaera garraioan energetikoen arabera Gipuzkoan (ptb). Eskuinean: Garraioan guztizko kontsumoaren denboran zeharreko bilakaera energetikoen arabera, A gasolioa kontuan izan gabe, Gipuzkoan (ptb). Berez eratua EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.



29. Grafikoa Partaidetza-portzentajea garraioaren kontsumoan energetikoaren arabera Gipuzkoan 2023an. Berez eratua EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.


8.2. Industria

Industriaren azken energia-kontsumoak beheranzko joera argia izan du azken urteetan. Industrian azken energia-kontsumoa % 46,16 jaitsi da 2010-2020 bitartean (1.036,2 kptb 2010ean eta 557.91 kptb 2020an). 2021ean pandemia osteko igoera izan ondoren, 2022tik berriro ere azken energia-kontsumoaren beheranzko joera ikusten da industrian, 2023an % 6,79 jaitsi baita 2022rekin alderatuta, 2020koaren inguruko balioak lortuz (30. Grafikoa).




30. Grafikoa Azken energia-kontsumoaren denboran zeharreko bilakaera Gipuzkoako industrian 2010-2023. Berez eratua EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

Gipuzkoako industriaren azken energia-kontsumoaren bilakaeraren eta lurralde bereko industriaren BPG-ren bilakaeraren arteko alderaketa eginez gero, ikus daiteke azken 13 urteetan BPG-k gora egin duen bitartean, sektoreko energia-kontsumoak behera egin duela. Beraz, badirudi azken energia-kontsumoa eta Gipuzkoako industria-sektorearen hazkunde ekonomikoa bereiztea lortu dela.




31. Grafikoa Gipuzkoako industriaren Barne Produktu Gordinaren (BPG) eta energiaren azken kontsumoaren bilakaeraren adierazleak, 2010etik 2023ra. 2010eko balioa 100 dela aintzat hartuta kalkulaturako aldakuntza. Berez eratua Eustaten datuetan (2024 a) eta EEEn informazioan oinarrituta.


Paper eta kartoiaren industria da Gipuzkoako industriaren sektoreko energia-kontsumitzaile nagusia, kontsumoaren % 31,37 irudikatuz. Bigarren energia-kontsumitzaile industrial nagusia siderurgiaren eta fundizioaren azpisektorea da, % 26,19 ko kontsumo-tasa batekin. Azpimarratu behar da bereziki siderurgiaren eta fundizioaren sektorean azken kontsumoa oso modu adierazgarrian jaitsi dela, 2010etik 2023ra % 59,18ko murrizketa izanik. Hainbat jarduera bertan behera uztearen eta beste instalazio batzuetan energia-eraginkortasuna hobetzearen ondorio da hori. Oro har, Gipuzkoako industriaren azpisektoreek azken energia-kontsumoa murrizteko joera erakutsi dute, eraikuntzan eta metalurgian (ez burdina) izan ezik, azken urteetan nolabaiteko goranzko joera izan baitute (32. eta 33. Grafikoa).



32. Grafikoa Energia-kontsumoa azpisektore industrialen arabera Gipuzkoan 2023an (kptb). Berez eratu EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.




33. Grafikoa Azken energia kontsumoaren bilakaera azpisektore industrialen arabera Gipuzkoan 2010-2023 (kptb). Berez eratu EEEn informazioan oinarrituta.



34. Grafikoa Azken energia kontsumoaren bilakaera azpisektore industrialen arabera Gipuzkoan 2010-2023 (kptb) Papera eta kartoia eta Siderurgia eta fundizioa erakundearen informazioan oinarrituta.

Energia motari begiratu, urte hauetan zehar industrian elektrifikazioa gertatu da, gas-kontsumoaren murrizketa bat eraginez. Energia elektrikoak 2023an azken energia-kontsumo handiena suposatzen du (% 43,49), gas naturalaren aurretik (% 34,84). Energia berriztagarrien partaidetza, energia elektrikoaren frakzio berriztagarria kontuan izan gabe, areagotu egin da 2010etik, eta 2023an kontsumitutako azken energiaren % 13,20 suposatzen dute sektore horretan.


Ez dugu ahaztu behar energia elektriko modura irudikatutako azken kontsumoaren % 48,15 gutxi gorabehera iturri berriztagarrietatik datorrela (1. eta 14. Grafikoa).



35. Grafikoa Energetikoaren araberako kontsumoa industrian Gipuzkoan 2010-2023 bitartean (kptb). Berez eraturia EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.


8.3. Eraikuntza

Eraikuntzaren sektoreari dagokionez, ikusi daiteke industria-sektore horren azken energia-kontsumoa nabarmen aldatu dela azken 13 urteetan. 2013an energia-kontsumoaren nabarmen batean eta 2015era arteko beherakada handi baten ondoren, sektore horretako azken energia-kontsumoa handituz joan da 2021etik aurrera, bereziki. Eraikuntza sektorearen Gipuzkoako BPG-k ere oso argi ez dagoen eta aldakorra den joera erakusten du urtearen arabera. Esan daiteke sektoreko BPG nahiko konstante mantendu dela 2012tik, 2017tik 2019ra eta duela gutxi, 2021etik aurrera, izandako gorakada batzuekin. Beraz, Gipuzkoako eraikuntzaren sektorean ezin da esan bereizketa lortu denik azken energia-kontsumoaren eta sektorearen hazkunde ekonomikoaren artean.



36. Grafikoa Barne Produktu Gordinaren (BPG) eta azken energia kontsumoaren bilakaera adierazleak Gipuzkoako eraikuntza sektorean 2010etik 2023ra. 2010eko balioa 100 dela aintzat hartuta kalkulaturako aldakuntza. Berez eratua Eustaten datuetan (2024 a) eta EEEn informazioan oinarrituta.

Eraikuntzaren sektoreak Gipuzkoan gehien kontsumitzen duen energia elektrikoa da (% 58), baina gas naturala ere kontsumitzen dute (% 42).




37. Grafikoa Azken energia kontsumoa energetikoaren arabera Gipuzkoako eraikuntzaren sektorean 2023an (kptb). Berez eratua EEEn informazioan oinarrituta.


8.4. Nekazaritza eta arrantza

Arrantza eta nekazaritza, edo lehen sektorea, Gipuzkoan azken energia-kontsumo gutxien duen sektorea da. Hori koherentea da ekonomiari egiten dion ekarpen urriarekin, kontuan izanik

Gipuzkoan lehen sektorearen BPG-k lurralde osoko BPG osoaren % 0,64 suposatzen zuela 2023an (Eustat, 2024 a), hala ere, sektoreko BPG-k goranzko joera izan du azken urteetan (36. Grafikoa). Sektorearen energia-kontsumoak bilakaera irregularra du, baina 2010-2023 bitartean % 62,54ko jaitsiera erregistratzen da. Beraz, badirudi azken energia-kontsumoa eta sektore horretako hazkunde ekonomikoa bereiztea lortu dela.




38. Grafikoa Energia-kontsumoaren denboran zeharreko bilakaera nekazaritza eta arrantza Gipuzkoan 2010-2023 bitartean (kptb). Berez eratua EEE erakundearen informazioa oinarritat hartuz.




39. Grafikoa Barne Produktu Gordinaren (BPG) eta azken energia kontsumoaren bilakaera adierazleak Gipuzkoako nekazaritza eta arrantza sektorean 2015etik 2023ra. 2015eko balioa 100 dela aintzat hartuta kalkulaturako aldakuntza. Berez eratua Eustaten datuetan (2024 a) eta EEEren eta GFaren informazioan oinarrituta.

Azken urteetan, Gipuzkoako sektore primarioan, nekazaritzaren azken energiaren kontsumoa arrantzarena baino handiagoa izateko joera dago. Izan ere, nekazaritza 2020an % 41,46 izatetik 2023an % 68,31 izatera igaro da, eta arrantza 2020an % 58,54 izatetik 2023an % 32,01 izatera jaitsi da.



40. Grafikoa Kontsumoa nekazaritza eta arrantza azpisektoreen arabera Gipuzkoan 2023an (kptb). Berez eratuak EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.


Azken energia-kontsumo baxuena duen sektorea izan arren, nabarmendu behar da gehien erabiltzen duen energia-iturria petrolio eta bere deribatuak dela (% 72,76). Zehazki, hori da arrantzaren sektorean kontsumitzen den energia-iturri bakarra, eta, aldi berean, azken urteetan nolabaiteko beheranzko joera erakutsi du. Halaber, gas naturalaren erabileraren proportzioak zertxobait behera egin du eta nekazaritzaren sektorean nolabaiteko elektrifikazioa ikusten da, azken horretan energia berriztagarriak oso modu apalean gaineratzen direlarik.



41. Grafikoa Energetikoaren arabeko kontsumoa nekazaritzan eta arrantzan Gipuzkoan 2010-2023 bitartean (kptb). Berez eratuak EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

8.5. Zerbitzuak


Gipuzkoan zerbitzuen sektorea gailentzen da, 2023an Gipuzkoako BPG osoaren % 60,38 suposatuz (Eustat, 2024 a).



42. Grafikoa Energia-kontsumoaren denboran zeharreko bilakaera zerbitzuen sektorean Gipuzkoan 2010-2023 bitartean (kptb). Berez eratu EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

Ikus daitekeenez, 2010-2014 bitartean azken energia-kontsumoak % 6,9 egin zuen behera, eta ondoren % 10,3ko igoera izan zuen 2018 bitartean. 2019an azken energia-kontsumoak behera egin zuen % 2,9; eta 2020an zehar jaitsiera hori oso handia izan zen (% 7,41) pandemiaren eraginez. Haatik, 2021, 2022 eta 2023an behera egiten jarraitzen du 2020arekiko, eta azken hamarkadan balio minimoak lortu ditu. 2010etik 2023ra % 26,40 jaitsi zen. Ziurrenik, jaitsiera hori sektorean energia-efizientzia egindako jarduketan ondorio da, esate baterako, argiztapenean, klima edota bulegotikako ekipamenduetan egindako hobekuntzen ondorioz.


Energia elektrikoa da sektore honetan gehien erabiltzen den energetikoa, % 81,33ko partaidetza batekin 2023an. Ez dugu ahaztu behar energia elektriko modura irudikatutako azken kontsumoaren % 48,15 gutxi gorabehera iturri berriztagarrietatik datorrela (1. eta 14. Grafikoak).



43. Grafikoa Energetikoaren araberako kontsumoa zerbitzuen sektorean Gipuzkoan 2010-2023 bitartean (kptb). Berez eratu EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.


8.6. Bizitegi erakoa

Bizitegi-sektorean joera aldakorra ikusten da 2010az geroztik, baina kontuan izan behar da bizitegi erako kontsumoa, hein handi batean, urteko klimatologiaren arabera dela. 2010-2023 bitartean, azken energia kontsumoa % 23,50 murriztu da bizitegi-sektorean.



44. Grafikoa Energia-kontsumoaren denboran zeharreko bilakaera bizitegi-sektorean Gipuzkoan 2010-2023 bitartean (ktpb). Berez eratu EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

Azken urteetan petrolioaren eta bere deribatuen partaidetzak behera egin duela ikusten da, gas naturalaren mesedetan. Energia berriztagarrien partaidetza igotzen ari da azken urteetan, baina, oraindik bizitegi-sektorean kontsumitzen den energia guztiaren portzentaje txiki bat da, % 7,90. Haatik, ez dugu ahaztu behar, hainbatetan aipatu den eran, energia elektrikoaren zati batek jatorri berriztagarria duela; zehazki, Gipuzkoan kontsumitutako energia elektrikoaren % 48,15 gutxi gorabehera, jatorri berriztagarrikoa da.



45. Grafikoa Energetikoaren arabera kontsumoa bizitegi-sektorean Gipuzkoan 2010-2023 bitartean (ktpb). Berez eratu EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.


9. Adierazleak

AUTOHORNIKUNTZA

Herralde edo komunitate batek inportazioekiko duen mendekotasun energetikoa neurtzen duen adierazlea da. Lurraldean bertan ekoizten den energia primarioaren ehunekoa (%) adierazten du, eta ekoiztutako energia primarioaren eta barne-kontsumo gordinaren (edo energia primarioaren kontsumoa) arteko erlazio modura kalkulatzen da.

Gipuzkoaren kasuan, adierazle honek % 4,51tik % 7,15ra egin du gora 2010-2023 bitartean.

3E2030 estrategiak politika energetiko aktiboen agertoki bat finkatzen du, 2015eko % 6tik 2030ean % 12ra haztea ahalbidetzeko erkidego mailan. Laburbilduz, datozen 7 urteetan, autohornikuntzak % 4,85 egin beharko luke gora.



46. Grafikoa Autohornikuntzaren bilakaera Gipuzkoan 2010- 2023 bitartean. Berez eratua EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KUOTA KONTSUMOAN

Adierazle honek esaten digu kontsumitutako energiaren zer portzentajek duen jatorri berriztagarria. Energiaren azken kontsumoan, EEBB-en kuota iturri berriztagarrietatik datorren energiaren barne-kontsumo gordinaren eta guztizko energiaren azken kontsumoaren arteko zatidura da.

Iturri berriztagarrietatik datorren barne-kontsumo gordina kalkulatzeko honakoak batu dira:

- Ekoiztutako energia berriztagarria (1* kodea 3. irudian) (barne hartzen ditu, eraldaketa, 4* kodea; jatorri berriztagarriko kogenerazioa, 5* kodea; eta zentral termoelektrikoko frakzio berriztagarria, 7* kodea).
- Gipuzkoan inportatutako energia berriztagarria (2* kodea 3. irudian).
- Jatorri berriztagarriko energia elektriko inportatua (3* kodea 3. irudian).




47. Grafikoa EEBO kuotaren bilakaera azken kontsumoan Gipuzkoan 2010-2023 bitartean. Berez eratu EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

Gipuzkoan adierazle honek goranzko joera orokorra ageri du, eta aurtien 2030erako helburu-balioa gainditzea lortu da, hau da, % 21era iristea 3E2030-aren arabera. Hala ere, oraindik tartea dago Euskadiko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko 1/2024 Legeak ezarritako helburu berria lortzeko; izan ere, 2030erako, energia berriztagarriek azken kontsumoan duten partaidetzaren % 32ko helburu berria ezartzen du. Kontuan izan behar dugu Gipuzkoan ekoiztako energia berriztagarriaren portzentajea, inportazioak bazter utzita, oraindik oso txikia dela, eta azken guztizko kontsumoaren % 7,64 suposatzen duela soilik. 2022 eta 2023 bitartean izandako hazkundeak Espainiako mix elektrikoan berriztagarriaren kuota igotzeak eragindakoa da; izan ere, 2022 eta 2023 bitartean % 42,20tik % 50,3ra igo da.

BERRIZTAGARRIAREN EKOIZPENAK ELEKTRIZITATEAREN ESKARIAN DUEN PARTAIDETZA

Adierazle honek esaten digu kontsumitutako energia elektrikoaren zer portzentaje ekoitzi den Gipuzkoan energia berriztagarritik abiatuz (4*, 5* eta 7* kodeak 3. irudian). Elektrizitatearen eskarian berriztagarriaren ekoizpenaren partaidetza da Gipuzkoan iturri berriztagarrietatik datorren energia elektrikoaren ekoizpenaren eta azken guztizko elektrizitate-kontsumoaren arteko zatidura.

Gipuzkoan energia berriztagarriaren ekoizpenak, nagusiki, industrian erabiltzen den azken energia termikoa sorrarazten du. Gainerako energia berriztagarria garraioan, zerbitzuen sektorean eta etxeetan erabiltzen da. Haatik, adierazle honek iturri berriztagarriak baliatuz energia elektrikoa ekoiztearen garapenerako ahalmen handiari begiratu nahi dio. Autokontsumo-instalazioak gero eta indar gehiago hartzen ari dira. Beraz, elektrizitatearen eskarian berriztagarrien ekoizpenak gora egiten jarraitzea espero da, 2023an ikusi den bezala.




48. Grafikoa Gipuzkoan elektrizitatearen eskarian ekoizpen berriztagarriak duen partaidetza 2010-2023 bitartean. Berez eratu EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

ENERGIA-INTENTSITATE PRIMARIOA

Adierazle honek lurraldeko energia primarioaren kontsumoa eta BPG lotzen ditu. Barne-kontsumo gordina BPG unitate bakoitzeko bezala definitzen da.


Hurrengo grafikoan adierazle honek izan duen bariazioa irudikatzen da, erreferentzia gisa 2010. urtea hartuz (2010 = % 100). Gipuzkoaren kasuan, energia-intentsitatea % 44 jaitsi da 2010 urtetik.



49. Grafikoa Energia Intentsitate Primarioaren bilakaera 2010. urtearekin alderatuz: barne-kontsumo gordina/BPG (ptb/M €). Berez eratu EEE, GFA eta Eustat erakundearen informazioa oinarritzat hartuz (2024 a).

AZKEN ENERGIA-INTENTSITATEA

Adierazle honek lurralde bateko sistema ekonomikoaren efizientzia neurtzen du, ekonomia-unitate bat ekoizteko beharrezkoa den azken energia adieraziz. Azken energia-kontsumoa eta BPG lotzen ditu. Gipuzkoan, azken energia-intentsitatea % 43 jaitsi da 2010. urtearekin alderatuz eta % 32 2015. urteko balioekin alderatuz.




50. Grafikoa Azken energia kontsumoaren bilakaera Gipuzkoan 2010. urtearekin alderatuz: Azken energia kontsumoa/BPG (ptb/M€). Berez eratu EEE, GFA eta Eustat erakundearen informazioa oinarritzat hartuz (2024 a).

Bestalde, 3E2030 estrategian azken energia-intentsitatea hobetzeko helburuak ezartzen dira, % 24koa eta % 33koa, 2025ari eta 2030ari begira, hurrenez hurren. Beraz, 2023an 2025erako energia-intentsitatea hobetzeko helburua beteta dago Gipuzkoan, eta 2030erako helburua lortzetik oso gertu.

BIZTANLEKO ENERGIA-KONTSUMOA BIZITEGI-SEKTOREAN


Adierazle honek etxeetan biztanleko dagoen kontsumoaren neurria ematen digu. Lurralde bateko bizitegi erako kontsumoaren eta biztanle kopuruaren arteko zatidura modura kalkulatzen da. Urtez urte nolabaiteko aldakortasuna badago ere, bizitegi-sektorearen kontsumoa urteko klimatologiaren baldintzapean bait dago, adierazlearen joera orokorra urteekin jaistekoa da, izan ere, 2023an adierazle honentzat 2010etik izandako baliorik txikiena lortu da.



51. Grafikoa Gipuzkoako bizitegi erako kontsumoaren bilakaera biztanleko 2010- 2023 bitartean (GJ/buruko). Berez eratua EEE eta Eustat erakundearen informazioa oinarritzat hartuz (2024 b).

ENERGIA ALTERNATIBOEN ERABILERA ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOAN

Adierazle honek garraioan ematen den erregai alternatiboen erabilerari buruzko neurria ematen digu, garraioko kontsumoaren zatirik handiena petrolioak eta bere deribatuek baitute. EEE erakundeak helarazitako datuak hartuta, eta kontuan izanik balantze honetan energia alternatibotzat biokarburatzaileak eta energia elektrikoa jotzen direla; bi horien arteko baturaren eta errepide bidezko guztizko kontsumoaren arteko zatidura kalkulatu da.




52. Grafikoa Energia alternatiboaren erabilaren portzentajearen bilakaera erreproportzio bidezko garraioan Gipuzkoan 2010-2023 bitartean. Berez eratuak EEE erakundearen informazioa oinarritzat hartuz.

Gaur egun, erreproportzio bidezko garraioan kontsumo elektrikoa oso eskasa da eta, beraz, grafiko honetan, gehienbat, biokarburatzaileen partaidetzaren bilakaera erakusten da.

Adierazle honen bilakaerak ez du joera argirik jarraitzen. Nahiz eta azken urteetan egonkor mantendu den, beheranzko joera leun batekin, 2023 urtean adierazle hau asko igo da. 3E2030 estrategian erreproportzio bidezko garraioan energia alternatiboaren erabilarekin lotutako helburuak ezartzen dira; zehazki, % 10ekoa 2025erako eta % 21ekoa 2030erako. Azken urteko hazkundearekin gero eta gertuago daude helburu horiek, eta ibilgailu elektrikoaren erabilera handitzearekin lortu ahal izatea espero da.

AZKEN ENERGI-INTENTSITATEA EKOIZPEN SEKTOREAREN ARABERA

Adierazle honek Gipuzkoako produkzio-sektore bakoitzean unitate ekonomiko bat ekoizteko behar den azken energia neurtzen du, kasu honetan, industria, eraikuntza, eta nekazaritza eta arrantza kontuan hartuz. Sektorre bakoitzerako azken energia-kontsumoaren eta Gipuzkoako sektorre horietako bakoitzerako BPG-ren arteko zatiduraren bidez kalkulatu da.




53. Grafikoa Gipuzkoako produkzio-sektoreen azken energia-intentsitatearen bilakaera 2010 eta 2023 bitartean: azken energia-konsumoa sektorean/sektoreko BPG-ren arabera Gipuzkoan (Kptb/MM€). 2010eko balioa % 100 dela aintzat hartuta kalkulaturako aldakuntza. Berez eraturia EEEn eta Eustaten informazioan oinarrituta (2024 a).

